

## Ekonomia manipulatu

Datu estatistiko eta makroekonomikoek benetako egoera sozioekonomikoa ezkutatzen dute beti. Espainiako Estatuko presidenteak esan du Espainiako ekonomia munduko lehenengo postuetan dagoela eta %3,7 hazten segiko duela. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Gobernuak segurtatu dute bertako ekonomiek hazten jarraituko dutela, Espainiakoa baino gehiago ere bai. Ez digute esan ordea, soldatek ia ez dutela gora egin eta erosketa-saskiak gora eta gora egiten duela. Enplegua prekariora da. Etxebizitza izugarri garestia. Hipotekak gazteak hiltzen ditu. Hamarnaka mila pentsiodun hala moduz bizi da... Diotenez, euskaldunen pentsioen batez bestekoa 838,85 eurokoa da, nahiz eta milaka asko diren hori baino askoz gehiago irabazten dutenak, 2.600 eurora arte, eta beste milaka asko dira batez bestekoa baino gutxiago jasotzen dutenak, 338,84 eta 606,06 euro artean. Batez besteko soldata 900 euroren inguruan ibiliko da, nahiz eta hamarnaka mila lagun diren gutxieneko soldatara (570,6 euro) iristen ez direnak edo 1.000 eurora heltzen ez direnak. Beste askok 1.000 eurotik gora irabazten dute. Enpresariak eta bankariak albo batera utzita, horietako batzuk dira gure zergekin ordaintzen diegun politikariak. Hegoaldeko alkate eta lau hiriburutako diputatu batzuk 7.000 eurotik gora ere irabazten dute hilero. Esate baterako, Bilboko alkate Iñaki Azkunak 92.873 euro gordin jasotzen ditu urtean eta Gipuzkoako ahaldu nagusi Markel Olanok 97.861 euro.

Horrela, datu makroekonomikoak eta estatistikoak azaltzea egoera sozioekonomikoa manipulatzeko da.

Juan Mari Arregi

## Garabide Elkartea abian da

**GARABIDE ELKARTEA** Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean, Mundukiden, ikastoletan eta Arrasateko mugimendu kooperatibistan dabilen hainbat eragilek sustaturikoa da. Hegoaldeko herri indigenekin, nortasuna galtzeko arriskuan duten komunitateekin, kooperazioan aritzea da asmoa, alor sozioekonomiko hutsetik harago. Proiektuaren alor bat I. Esperientzien Truke Programa da eta azaroan Hegoaldeko hainbat herri indigenetako eragileak etorriko dira, besteren artean Elgetako Kafe Antzokia, EITB, Goiena, Emun, Euskaltzaindia, Ikastolen Federazioa, EKT eta AEK bisitatzeko asmoz. Ikusi eta entzuteaz gain, beraiek ere hitzaldiak eskainiko dituzte Mondragon Unibertsitateko ikasleentzat, euskalgintzako eragileentzat eta edonorentzat.

## Correllengua badoa

**KORRIKAREN ANAIA KATALANAK**, Correllengua, lehen pausoak eman zituen joan den irailaren 11n Bartzelonan eta azaroaren 3an amaituko da Perpinyan. Aurtengo leloa *Parla'm* da eta 400 herritatik igaroko da lasterketa berezia.

### BAHEA

**Henrike Knörrek *El País*en esanak:** "Ez dauka erremediorik. EITBk urteak daramatza erakusten bi hizkuntza ofizialak ondo erabiltzea ez duela serio hartzen edo ez diola behar bezalako garrantzia ematen. Etxe horretan ezinezkoa izan da hizkuntza zerbitzu benetakoa ezartzea (ez ahaztu erakunde publikoa dela) eta adabaki batzuk jarri baino ez da egin, pertsona batzuegana joz eta hiru-lau ikastaro eginda. Behar denetik oso-oso urruti".

**www.tiraka.net-en *egorospek* esanak:** "Hamaika bider salatu dugu euskara itxurakeri hutsetarako baino ez dela erabiltzen, gaztelaniaz lantzen diren testuei euskal kutsua emateko. Honako hau da horren adibiderik gardenena. Nola liteke 2007an Hezkuntzako Curriculumaren garapen prozesu osoa gaztelaniaz egitea, oraintsu argitara berri diren datuen harira, Batxilergora arteko EAEko ikasleen % 60ak D erudian egiten baditu bere ikasketak? Zein irakaslek hartuko du, gida modura, euskarazko bertsioa, jakinaren gainean itzulpena dela, eta jatorrizko bertsio gaztelaniazkoarekiko hutsuneak izan ditzakeela?"



ILLARRA  
Jatetxea

Illara bidea 97 • 20009 Donostia

Tel.: 943 21 48 94

www.restauranteillarra.com • info@restauranteillarra.com

## Jaurlaritza-EBB: kontsultaren oreka adostu beharra

**IMAZ** lurrikararen errepikapenak ez dira baretu oraindik eta gaiak luzerako emango duela dirudi, behintzat ordezkoa hautatu arte. Bere hautagaitzarena konpon daiteke, baina EAJren baitan dagoen sumendiaren adierazle besterik ez da, Imazek bere gutunean argi aitortu zuen bezala. Sumendi ziklikoa da, oraingoan labak Imaz eraman du aurrez aurre, baina jeltzale guztiek dute buruan EAren sorrera.

Iñigo Urkulluren gidaritza eta EBBren osaketa adosten badira, barne oreka larria sendotzea izango da hauen zereginik garrantzitsuena. Urkulluk, gainera, eta akordioak akordio, barne mailako sektore askoren mesfidantza handiarekin aritu beharko luke. Imazen alde egin zuten eta egiten duten bezala, komunikazio talde handiek –Vocento barne– Urkullu laudatu eta Joseba Egibar egurtzen jarraitzen dute, gehienetan zeharka eta sarritan zuzen-zuzenean. Imazi lerro ez abertzaleetatik luzatutako laudorio guztiek mesede egin ez dioten moduan, Urkullurentzat ere akuilu baino zama izan daitezke.

Zergatik eta nola gertatu den orain Imazena joango da argitzen apurka, baina zantzu nagusiak bederen ageri samarrean dira. Uztaileko bere artikululu ospetsuak dagoeneko adierazten zuten alderdi barruan ez zebilela indartsu, edo bestela oso kalkulu akats larria egin zuten. EBBko lehendakari batek nekez idatz dezake horrela bere kabuz, jakinik ukitzen dituen gaietan dela barne liskarren epizentroa. Denak adierazten du bere amaiera hau aspalditik datorren kontua dela.

Baina amaiera al da? Hori da airean dagoen beste kontua, asko-



Joseba Egibar eta Josu Jon Imaz abuztu bukaeran Zarautzen egindako ohiko ekitaldian.

ren burura etorri baita Xabier Arzalluzek 1984an egindakoa, alderdiko erantzukizunak alboratuta Londresera joan zen, baina geroago itzuli eta 1986an hautatu zuten berriz EBBko lehendakari eta 2003 arte jarraitu zuten postuan. Bere agintaldiaren amaierarekin bat azaleratu zen indar handiz EAJren barneko egungo lehia. Bada, askoren ustez, Imazek ere –edota bere ingurukoek– halako zerbait izan dezake buruan, baina itzulera Juan Jose Ibarretxe ordezkatzeko litzateke, hemendik sei bat urtera (egungo legealdia gehi beste bat, hauteskundeak irabaziz gero).

Egia da ematen direla halako itzulerak –Felipe Gonzalez, Arzalluz...–, baina egia da halaber Imazek ibilbide gaitza duela joan-etorriko bidaia horretan, EAJren eta gainerako abertzaletasunaren egoera politikoak ez dio horretara laguntzen. Batetik, Ibarretxek erabakia dauka zerbait serioa egitea kontsultarekin, nahiz eta gaur gaurkoz berak ere ez duen jakingo nola eta noraino joan daitekeen EBB berriarekin egoera negoziatu arte. Txosten politikoak errepide mapa finkatu du, baina hain da zabala eta malgua, bidean zehaztasun ugari eskatuko duela.

Bere barne egoeraz gain, alboetara begiratuta ere ezin da lasai ibili EAJ, gainerako indar abertzaleek burujabetza bideetara bultzatzen baitute. Ibarretxe Plana eta bake prozesuaren porrotaren ondoren, herritarrek –eta abertzaleek bereziki– desblokeo egoeretatik ateratzeko ahaleginak nahi dituzte. Ibarretxek eta Jaurlaritzako hirukoak badute berea, kontsultarena. Abertzaletasunean, oro-

har, badirudi ondo ikusiko litzatekeela Ibarretxe kontsultarena aurrera ateratzen saiatzea. Herritarra etsitua dago gatazkaren gaiarekin, eta erabat paso egitearen arriskua ere gero eta handiagoa da; egungo blokeo egoeratik ateratzeko ekimenekin apur bat asmatzen duenak urrea bilatuko du. Transbertsalitatearen diskurtso berrituarekin saiatu da Imaz azken lau urteotan, baina bistan da ez duela alderdia zutik jarri. Zeresanik ez abertzalegoa.

Izan daitezke hika-mika berriak, baina banaketaren itzalak akordioa ekarriko du Sabin Etxera. Hori bai, ondoren sua Jaurlaritzaren baitara heda daiteke. Kontsultaren agindua eman zitzaizen hautesle eta herritarrei eta orain hori EAJren txosten politiko berrian kokatu behar da. Iñigo Urkulluk berak firme jarri nahi izan zituen EA eta Ezker Batua, baina zuten indarra orain hobeto ikusi da. Une honetan EAJ ez dago PSE-EErekin abenturei ekiteko moduan, eta horrek esan nahi du jeltzaleek gaur egun ez dutela ordezkoko gobernu bazkiderik. Baina gero gerokoak, orain jeltzaleen lehentasunak EBB berria eta martxoko hauteskundeak dira.